





Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad
del País Vasco

Euskal Herril
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013 UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

LITERATURA UNIVERSAL

TESTUA

Itakara itzultzeko bidaian abiatzen zarenean,
egizu otoitz bidea luze izan dadin,
menturez betea, ezagutzez betea.
Lestrigoiei eta Ziklopeei,
eta Poseidon hiratuari ez iezaiezu beldur izan,
horrelakorik ez duzu zeure bidean inoiz aurkituko,
zure pentsamenduak gora badirau, baldin eta zirrara
fin batek zure izpiritua eta zure gorputza ukitzen baditu.
Lestrigoiak, Ziklopeak,
Poseidon hiratua ez dituzu aurpegiratuko,
zeure ariman ez badiezu abaro ematen,
zure arimak ez baditu jartzen zure aurrean.

Egizu otoitz bidea luze izan dadin.
Anitz udagoiz izan dadin,
zeinetan zein plazerez, zein zorientasunez
helduko baitzara alde zurretik amesturiko portuetara;
geldi zaitez merkatu feniziarretan,
eta merkantzia ederretarik egizu pilakera,
perlak eta koralak, anbar eta ebanoak,
eta lurrin laketgarri era guztietakoak,
ahal duzun gehiena lurrin laketgarrietarik;
hiri egiptoar askotara joan zaitez,
ikasteko eta ikasteko dakitenengandik.

Zeure adimenduan ukan ezazu Itaka beti.
Horrainoko etorrera da zure jomuga.
Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere.
Hobe da anitz urte eder dirauela;
eta behin zaharturik ja irlara heltzea,
bidean irabazitako guztiarekin aberats,
espero gabe Itakak aberastasunik ematea.

Itakak bidaia eder bat eman zizun.
Bera gabe ez zinatekeen abiatu.
Baina ez dauka deus besterik zuri emateko.

Era pobrea edireten baduzu, Itakak ez zintuen engainatu.
Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin
ulertu dukezu Itakek zer erran nahi duten.

A AUKERA

1. Azaldu itzazu poesia erromantikoaren ezaugarri eta gai nagusiak, eta erlazioa itzazu mugimendu hori sortzen den testuinguru historikoarekin. Aipatu, gutxienez, garai honetako bi poeta eta bi obra adierazgarri. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako poemaren izenburua, eta adieraz itzazu egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatzen den. Adieraz ezazu zein diren aldi historiko horretako joera poetiko nagusiak. Ezaugarritu ezazu joera horietako bat laburki. (2 puntu)
3. Aipa itzazu modu sakonean obraren literatura-aurrekariak eta lot itzazu egilearen ezaugarri orokorrekin. Arrazoitu ezazu zure erantzuna testuaren adibideak emanez. (3 puntu)
4. Erlazioa ezazu olerkia gaurko gizartearekin. Gaur egun indarrean dago haren esanahia? Gaurko irakurleentzat esanguratsua suerta daiteke? Argudia ezazu erantzuna zeure bizipenak eta irakurketak sortu dizun eragina kontuan izanik. (2 puntu)

B AUKERA

1. Errealismo magikoa. Koka ezazu mugimendua bere testuinguru historikoan, eta komentatu haren ezaugarri eta gai nagusiak. Aipa itzazu, gutxienez, mugimenduaren hiru egile eta hiru obra adierazgarri. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako poemaren izenburua eta adieraz itzazu egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatzen den. Adieraz ezazu zein diren aldi historiko horretako joera poetiko nagusiak. Ezaugarritu ezazu laburki joera horietako bat. (2 puntu)
3. Komenta itzazu, gutxienez, poeman agertzen diren bi gai, eta lot itzazu egilearen ezaugarri orokorrekin. Ze topiko literario garatzen da poeman? Arrazoitu ezazu zure erantzuna, testuaren adibideak emanez. (3 puntu)
4. Zein da, zure iritziz, olerki honen esanahia? Haren mezuaren aldekoa ala kontrakoa zara? Argudia ezazu erantzuna zeure bizipenak eta irakurketak sortu dizun eragina kontuan izanik. (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Poesia erromantikaren gaiak eta ezaugarriak aipagarrienak azaltzea: 1,5 puntu
- Ezaugarri horiek erromantizismoaren testuinguruarekin erlazionatzea: 1 puntu
- Mugimendu horren bi poeta eta bi obren izena aipatzea: 0,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 0,5 puntu
- XX. mendeko joera poetikoak aipatzea modu zuzenean: 0,5 puntu
- Joera horietako bat modu egokian azaltzea: 1 puntu

3. galdera (3 puntu)

- Testuaren literatura-aurrekariak identifikatzea: 1,5 puntu
- Kavafisen lanaren ezaugarriekin modu egokian lotzea: 1 puntu
- Emandako erantzunak testuaren aipamenekin justifikatzea: 0,5 puntu

4. galdera (2 puntu)

- Bere iritzia modu koherentean adieraztea, eskatutako gaiari kokatuz.
- Bere iritzia argudio, adibide edo bere bizipenekin indartzea.
- Obraren berezko interpretazio ulertzaile bat egiteko gai dela erakustea.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Errealismo magikoaren ezaugarriak azaldu eta komentatzea: 1,5 puntu
- Ezaugarri horiek errealismo magikoa sortzen den testuinguruarekin erlazionatzea: 1 puntu
- Mugimendu horren hiru idazle eta hiru obra, gutxienez, aipatzea: 0,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 0,5 puntu
- XX. mendeko joera poetikoak aipatzea modu zuzenean: 0,5 puntu
- Joera horietako bat modu egokian azaltzea: 1 puntu

3. galdera (3 puntu)

- Olerkian garatzen diren bi gai modu egokian eta sakonean komentatzea: 1 puntu
- Kavafisen lanaren ezaugarri orokorrekin lotzea: 1 puntu
- Poeman garatzen den topiko literarioa modu egokian azaltzea: 0,5 puntu
- Emandako erantzunak testuaren aipamenekin justifikatzea: 0,5 puntu

4. galdera (2 puntu)

- Bere iritzia modu koherentean adieraztea, eskatutako gaien kokatuz.
- Bere iritzia argudio, adibide edo bere bizipenekin indartzea.
- Obraren berezko interpretazio ulertzaile bat egiteko gai dela erakustea.